

ANTON ABADIA-REN LORALDI BERRIA

Eskenatokian zenbait mapa: Mundua; Europa; Etiopia; Bonaparteren mapa dialektologikoa... Hortaz aparte zenbait tresna zientifiko eta arropaz aldatzeko eskekitoki bat zenbait arropa eta atrezzoekin.

Publikoa jarrita dagoenean, lau pertsonak kutxa handi eta zahar bat sartzen dute, lepoan, hilerrietan hil kutxa eramán ohi den bezela, lepoan. Baina ez da hilkutxa, bidai kutxa zahar bat baizik. Kutxa pegatina eta etiketaz beterikoa: aideportuetako etiketak (New York, Sao Paulo, Addis Ababa, Paris, Oslo...) eta bestalako oharra: "Fragile"; "Urgent"...

Kutxa lurrean kokatzen dute.

Kutxa ireki eta Abadie agertzen da, irribarrez.

Ezinean sininsten duzue?

Ez naiz fenomeno sobrenaturalei buruz ari, hildakoen berpizketa eta holakoetaz, ez... Ezina diodanean, jendeak ezinezkotzat jotzen duenari buruz ari naiz, nekez gertatu daitekeenari buruz. Esatebaterako, adibide zoro bat ipintzearren...

Europako mapan, Bizkaiko golkoa seinalatu egiten du.

...Harri Aroko hizkuntza bat gaur eguneko European irautea.

Zientzia gizona naiz ni. Izarren elipsia, ibai eta mendien kokapena edota aditzen deklinazioa aztertzen ditut... Datuak, zientzia, errazionalitatea... Eta hala ere, ezinaren jarraitzaile sutsua naiz. Ez daukat erremediorik. Ezinean sinisten dut. Edo agian kontrakoa: ezinak nigan sinisten du.

Ezinezko istorio bat kontatuko dizuet, gure garaiotan gertatutakoa... Barkatu, nire garaietan esan nahi nuen. Hemeretzigarren mendean. Orain dela... instant bat.

Ezinezko istorio hau orduan ia gauza guztiak gertatzen ziren lekuan hasi zen,

Mapa batean Dublin seinalatzen du.

Britaniar Inperioan, zehatzago Dublin hirian, ezinezko herri bateko ezinezko hiriburua.

Ezinezko bikote bat bizi zen hiri hartan. Emaztea Eire zaharrean jaiotakoa zen. Irla horretan bakarrik ezinezko biztanleak ziren benetan irlandarrak: iratxoak eta intxisuak. Biztanle posibleak, gizakumeek, ezinezkoa zuten irlandar izan.

Senarra, berriz, herri bitxi batekoa zen, izenik gabeko herri bat: Baskonia batzuentzat, Gaskuña besteentzat, Nabarra, Bizkaia, Pais Basque, Pais Vasco, Euskal Herria. Ezinezko herri hori hemen zegoen gutxi gora behera...

Mapan seinalatzen du. Sorpresa itxurak eginez.

...hara, ezinezko hizkuntza hura zegoen toki berean, kasualitatea!

Ezinezko bikote hura nire gurasoak ziren. Kultoak, kosmopolitak, aberatsak... Hezkuntzarik onena eskeini zidaten, ingelesez eta frantsesez, latinez eta grekeraz... Nire jaioterriko Gaelikoa ere ikasi nuen. Baina hizkuntzei buruz ari garela, nire aitak ezinezko ideia bat izan zuen: Zuberetatik neska bat ekarri zuen, inude bat, nik hizkuntza xeblebre hura bere bularretik edan nezan.

Pizarran bular batzu dibujatzen ditu.

Zeinen ederrak, bular oparo horiek! Esnea, titia, titiburua, transmisioa, bularra, epeltasuna, euskera... Dena jaso nuen batera. Psikoanalista batek gozatuko zuen euskerarekiko nire grina aztertuz!

Publikoari begira, irribarrez.

Nire berri duzuenak harrিতuta egongo zarete. Ni pertsona serio eta zentzuduna izan nintzelako. Baina zer nahi duzue, heriotzak ematen duen distantziak aldatu nau. Orain bihurriagoa naiz.

Zertaz ari nintzen? Ah, bai, bularrak... barkatu, euskera.

Bularrak ezabatzen ditu.

Laburbilduz: ni euskaldun jaio nintzen hemeretzigarren mendeko Dublin burgesean. Ni ezinezko gertaera zorioneko bat naiz.

Ze haize zorok bultzatu zuen nire aita, gizon kosmopolita, mundutarra, irekia, bere arbasoen hizkuntza ikas nezan? Europa modernoan hiltzera kondenatuta zegoen hizkuntza ezinezko hura?

Mapan seinalatuz.

Dublinetik Frantziako Toulouserara joan ginen bizitzera. Ikasteko gogoaz hazi nintzen. Plazer handiz ikasi nituen

arte eta zientzia guztiak, matematika, fisika, kimika, botanika, astronomia eta... hara... zein zen hainbeste gustatzen zitzaidan beste zientzia hura? Ahaztu zait... Ah, bai, (begia keinatuz) mnemoteknia.

Baina liburuetatik ikastea ez zen nahikoa. Jakinduria sortzen zen tokietara joan nahi nuen, iturrietara... Iturburura.

Ez dakit noiz sartu zitzaidan buruan Nilo iturburua aurkitzeko asmo zoroa, ezinezkoa. Gazte gazterik hasi nintzen kimera horretarako prestatzen, behar nuen guztia ikasten: geografia, topografia... Arabiera. Nire gorputza trebatu nuen bidaia gogor horretarako.

*Piolet zahar bat eta garaiko mendizaleen
kapela bat jantzita.*

Lau mila metroko mendi bat igotzen lehenetakoa izan nintzen, mendizaletasunak oraindik existitzen ez zuenean. Ederra da mendiak igotzea. Zergatik? Ez dakit, agian alferrikakoa delako. Alferrikakoa, ezinezkoaren adiskidea.

Hego Amerikako mapa (edo mundukoa).

Etiopiakoa ez zen lehen bidaia izan. Nire etxeko habe batean idatzita dago: "bizitza bidaiatuz ikasten da". Hori baino lehen Europa zaharra zeharkatua nuen, Egipto, Jerusalem... Amerika ere, Haiti, Brasil...

Brasileko bidaia berezia izan zen. Eguzkiaren magnetismoa aztertzerara joan nintzen. Franziskotarren komentu bat utzi zidaten nire tresna zientifikoak kokatzeko. Asteak eman nituen datuak biltzen eskenatoki ia ezinezko horretan.

*Monje zahar bat eta neskatxa gazte bat
dibujatzen ditu, lau trazo azkarrez.*

Monastegi zaharra eta zientzia gaztea elkarrekin gustora zeuden. Monastegia agure bat zen nire irudian, zientzia neskato gazte polita, klaustro haietako lausak atrebentizaz zapaltzen zituena. Aire freskoa. Zaharrak koketeatzen zuen eta neskatoak irriz erantzuten zion. Nire berri duzuenak jakingo duzue ni oso erligiosoan izan naizela beti. Eta oso zientzia zalea ere. Erligio eta zientziaren elkartze horrekin pozarren nengoen. Ezinezko amodio eder bat. Monastegi eta zientzia, Piztia eta Ederra. (Tristatuz) Usteak ustel. Nire tresna zientifikoak demonioaren asmakizuna zirelakoan, Inkisizitza atxilotu ninduen, eta Brasiletik kanporatu, nire ikerketa burutu gabe.

Esan dizuet ni oso erligiosoan nintzela. Eta orduan ez nintzen Eliza Ama Katolikoarekin haserretu. Orain berriz, hilda nago, eta aitopen bat egin behar dizuet: ehun urtez ez dut zeruaren arrastorik ikusi. Ikuspuntu zientifikotik ezin dut ondorio definitibotik atera, ehun urte instant bat

besterik ez direlako, eta baliteke agindutako paradisia beranduago agertzea, baina mementuz, hemen ez dago ezer. Deus ez. Batere ez. Fitsik ez. Erligiosoa naizen aldetik zeharo dezepzionaturik nago. Zientifiko bezela, berriz, indarberrituta. Zientzia monastegiari gailendu zaio.

Monjea eta Neska ezabatzen ditu.

Baina bidaiei buruz ari ginen. Azkenean prest nengoen nire ezinezko ametsa betetzeko: Nilo iturburua aurkitzea.

*Exploradorez jantziko da. Salakot?
Turbantea?*

Beno ba, badakizue zer? Eta hau ezinean sinisten ez dutenei espreski esan nahi diet: aurkitu egin nuen. "Ah, beraz, Victoria Lakuko Urjauzietaraino iritsi zinen?",

Mapan seinalatuko ditu.

...galdetuko du baten batek. Eta gezurra maite ez dudanez, ezezt esango dut. Inoiz ez nintzen latitude hartaraino iritsi. Ekialdean izkutatzen ziren lurraldeak erakartzen ninduen, lurralde kristaua, Afrika beltzean: Etiopia, ederra utopia!

"Ah, gezurtia zara, beraz! Ez zinen inoiz Niloko iturbururaino iritsi!", esango du kontsolaturik ekintza ezinezkoen etsaiak. Eta erantzungo diot: "Ez jauna. Ez dut gezurra maite. Niloren iturburura iritsi nintzen."

Kontradizkio honen erantzuna oso sinplea da: Nilo ibaia hain da handia ze bi beso behar bait ditu bere lurralde osoa besarkatzeko.

*Pizarran Nilo ibaiaren bi adarrak
dibujatzen ditu. Koloreko tizekin: urdinez
Nilo Urdina, zuriz Nilo Zuria.*

Sudaneko lurretan, ibaia bitan banatzen da. Nik Etiopiara zeraman erretena jarraitu nuen. Beste besoa, hegoaldera zihoana, urrunago iristen zen, beina hori ez genekien orduan. Nilo Urdina eta Nilo Zuria. Ni Bubbiako oihaneraino iritsi nintzen, Inarya eta Jumma erresumen artean, Nilo Urdina jaiotzen den tokiraino.

Beraz, Niloko iturburutik edaten lehena izan nintzen. Eta baten batek badio hori ezinezkoa dela, erantzungo diot irribarre batez, dena ikusten dugun kolorearen arabera dela. Zuria. Urdina.

Koloretako tizak erakutsiz.

Etiopia maitatu nuen, bere kultura, bere jendea. Nire garaian aurreritzi baldarra zegoen afrikar beltzei buruz:

basatiak zirela, giza kondiziorik gabeak. Nik jende prestu, jator eta kultoa aurkitu nuen. Eta kristauak gainera.

Etiopiako "mapa" azkar bat dibujatuko du pizarran.

Etiopiako lehen mapa marraztu nuen. Haien hizkuntza ikasi nuen. Hizkuntzak, hobe esanda, hamalau dialekto ezagutu bait nituen. Amarigna zen hedatuena, gaurko "Etiopera batua". Lehen hiztegia atera nuen. "Etiopiera-frantsera", Dublinen jaiotako euskaldun batek idatzia. (Begi keinuz) Ez da posible? Ezin liteke?

Exploradore arropak kenduko ditu.

Hamarkadak eman nituen bidaiatzen, ikasten, ezagutzen, neurtzen... eta etxera bueltatzeko ordua iritsi zitzaidan. Ezinezko erabakia, etxerik ez neukalako. Ez etxerik, ez herririk, ezta izenik ere. Ni Ingalaterran Anthony nintzen. Frantzian Antoine. Espainia edo Hego Amerikan, Antonio. Euskalerrian Anton. Eta Abadia? Zer da? Euskaldunen hitza, jakina: fraile-etxea. Gastelaiatz hitz berbera da: abadía. Abbaye, frantsesez. Hitza grekeratik dator. Abbas. Eta "abbas" hau berriz arameotik: Abba: aita. Arameoa hizkuntza semitikoa da, Etiopiera bezelakoa. Etiopian Abba esaten zidaten askok. Aita. Bai, izen asko izan ditut. Baina izan bakarra. Etxeko habe batean idatzia dut: "Izana, eta ez Izena".

Pizarran idazten du: "Izana eta ez Izena"

Baina zertaz ari nintzen? Ah, bai. Zein zen nire tokia munduan?

Mapetan seinalatuz.

Dublin, nire jaioterria? Toulouse, gaztaroko txokoa? Paris, hainbeste irakatsi zidan hiria? Londres kosmopolita? Addis Abeba? Toki asko aukeran.

Eta orduan haize zoroaz akordatu nintzen. Nire aitak Zuberoatik Dublinera inude bat ekartzera bultzatu zuen haizeaz... Ideia zoro, zorioneko, ezinezkoak ekartzen dituen haizeaz. Nire etxean haize hori jotzea nahi nuenez, Hendaiako Itsaslabarrean kokatu nuen, itsasoko mendebalak jotzen duen tokian. Irlandako kostaldea gogora ekartzen duen tokian.

Abadiako Jauregiaren irudi eskematiko bat marraztuko du pizarran.

Hainbeste bidaiatu eta gero, nire arbasoen herrira bueltatu nintzen. Bidaiarien paradoxa: zenbat eta hurrunago joan, argiago ikusten dira norberaren erroak.

Ez nuen etxe arrunta egin nahi. Aparteko eraikuntza bat egin nahi nuen, jendearen harridura sortuko zuena: "Ez da posible, ezin liteke!" Abadiako jauregiak gauza asko esan daiteke, baina "euskal arkitektura jatorra" denik ez, behintzat. Exzentrikoa naizela pentsatuko dute askok, baina bost ajola. Zuek apur bat ezagutzen nauzue jada. Ez naiz exzentrikoa; nik ezina maite dut.

Neure etxe hartan, Abbadiako jauregian, ikasten, ikertzen jarraitu nuen. Zientziak eta letrak. Liburutegia eta laborategia. Sismografo bat jarri nuen, Europako lehenetakoa. Eta teleskopioa. Mapak egin nituen. Lurrekoak eta zerukoak. Etxea zuloz josi nuen.

*Pizarrak baliatzen da zuloena azaltzeko,
nolabait.*

Zuloak?, galdetuko duzue? Zertarako zuloak? Zuloak linea zuzena jarraitzen zuten, behetik gora. Imaginatu: zulo bat sotoan; beste bat sukaldean; beste bat saloian; beste bat eskilaretan; beste bat logelan; beste bat ganbarako sapaian... Eguzkiko argia zuloz zulo iristen zitzaidan teilatutik sotoan jarritako nire laborategiraino. Exzentrizidade bat? Ez. Argiaren errefrakzioa ulertu nahi nuen. Ez nuen lortu: oraindik ez genekien argiaren norabidea tenperaturaren arabera aldatzen zela. Orain jakin dut, hil eta gero. Inoiz ez da berandu.

Lan asko egin nuen. Arlo askotan. Baina bazegoen gai bat bereziki maite nuena. Aitagandik jaso nuen grina... eta inudearen bularretatik ere... Grinaz maitatu nuen euskera. Grinaz egin nuen lan euskeraren alde. Ikertu, aztertu...

Luis Lucien Bonaparteren mapa seinalatuz.

...eta erabiltzera bultzatu. Nire garaiko euskaldunen eszeptizismo eta pesimismoaren kontra egin nuen. Ez nuen ezkorra izateko motiborik. Ni Dublineko euskalduna nintzen. Ni ezinezko bat nintzen. Beraz, ezinezko gehiago egon zitekeen.

Zazpiak Bat idazten du pizarran.

Agustin Chaho-rekin gure lehen slogan publizitarioa asmatu nuen: Zazpiak Bat. Erregistratu izan banu aberastuko nintzen... Baina ze arraio, ahaztuta neukan, ni aberatsa nintzen. Oso aberatsa.

Nire diruaz, beste gauzen artean, arte erakustaldiak antolatu nituen, Grezia klasikoan egiten ziren moduan: lore jokuak, loraldiak.

Oso xumeak ziren. Poesia lehiaketak. Batzuetan prosazkoak ere. Aitzaki bat sortzaileak batzeko, elkar ezagutzeko, jendartera agertzeko. Festa bat bizirik geundela adierazteko, eta bizirik iraun nahi genuela. Yes, we can.

Mapan herriak seinalatzen ditu.

Ez dut gogoratzen zenbat antolatu genuen, Euskal Herriko hainbat tokitan, Urruna, Sara, Elizondo, Maule, Irun, Markina, Urnieta, Azkaine, Kanbo, Doneztebe, Iurreta, Donibane Loizune, Garazi, Bera, Areatza, Aramaio... Mendearen amaierarte.

Hemeretzigarren mendean gauza asko bukatu ziren. Besteak beste, nire bizitza. Eta Loraldiak ere. Mende berria hastera zihoan, Europa bi aldiz suntsituko zuena, amorru izugarriaz. Gero bere errautsetatik altzatuko zen Europa hura, bere buruaz lotsaturik, hutsetik berriz hasteko, harriz harri. Europa hartan ezer ez zen izango lehen izan zena.

Baina bazter honetan, Bizkaiko Golkoan, haize zoro batek jotzen du antza, eta ezinezkoa gertatu da: ehun eta piku urte geroago, hiltzera zihoan hizkuntza hura oraindik bizirik dirau. Eta inoiz baino gazteago.

Horregatik gaude hemen. Horregatik esnatu naiz ehun urtetako loalditik, batzuk ezinezkoa dela uste duten arren. Gaur azkenean ulertu dut zergatik ekarri zuen nire aitak inude hura Zuberetatik Dublineraino. Ezina ederra delako. Berak transmititu zidan grina hura. Loraldiak grina berbera transmititu nahi du. Ahoz aho. Bularrez bular.

Zorionez zoratuta gaudelako, eta ezina maite dugulako, Inauguratuta geratzen da Bilboko Lehen Loraldia!!